

FUNTSEZKO JARDUERAK

Zein dira egin behar dituzuen gauzarik garrantzitsuenak zuen proiektuak funtziona dezan?

Taldean komunikazioa egotea oso garrantzitsua da eta guztiok ditugun ideiak errespetatzea. Gainera taldekide bakoitzak bere alde positiboak eta negatiboak ditu, proiektua funtziona dezan guztion alde positiboak aprobetxatzen saiatu behar gara eta bakoitzak dituen ideia eta abildadeei ahalik eta etekin handiena ateraz gure proiektua aurrera joango da.

Horrez gain, hasieran markatutako helburuetara heltzeko ditugun atalak ondo betetzea eta egitea oso garrantzitsua izango da, hasiera batean, inork ez gaituenean ezagutzen edo gure produktuaren berririk ez dutenean, publizitate erakargarria egitea beharrezkoa izango da, atentzioa deitzeko eta gure web-gunean sar dezaten. Web gunea erakargarria eta berritasunekin egingo dugu, bezeroak gure proiektuaz interesa jartzeko eta enpresa gutxinaka- gutxinaka zabal dezan mundu guztitik.

Oso litekeena da hasieran zure enpresak etekinik ez sortzea, baina aurrera jarraitzea lortu behar duzu. Estrategia bat asmatu behar duzu, enpresa egunez egun kanpoko kapitala inbertitu beharrik gabe mantentzeko.

Gure proiektua funtziona dezan orden bat izatea garrantzitsua izango da, azken finean ordenarik ez baduzu, galdu egingo gara gauza askoren artean.

Beste alde batetik, bezeroak gure negozioaren oinarri nagusia dira, beraz bezeroekin harreman ona izatea ere funtsezkoa izango da. Haien beharrak ere ezagutu behar ditugu eta bezeroak ase behar ditugu. Zenbat eta bezero ase gehiago, orduan eta hazkunde handiagoa izango du gure enpresak.